



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK

EGIAZTATZEN DITUEN AGIRI AKADEMIKO OFIZIALEN SINADURA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, bere eskumenen arabera, EAEko ikastetxeetan egindako ikasketetan eta berak emandako unibertsitatez kanpoko tituluetan baino ezin du sinadura egiaztatatu.

- 1970eko abuztuaren 4ko Hezkuntzaren Lege Orokorretik ondorioztatzen diren ikasketak (UBI, Lanbide Heziketa, Arte Irakaskuntzak, Hizkuntza Irakaskuntzak, eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren eskolatzeliburuak).
- Sail honek emandako tituluak. Titulu horien ikasketak lege hauek arautzen dituzte: maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, eta 1990eko urriaren 3ko Hezkuntza Sistemari buruzko Lege Organiko Orokorrak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Arte Irakaskuntzak, Hizkuntza Irakaskuntzak eta Kirol Irakaskuntzak).
- Lehen aipatutako tituluak lortzeko egiten diren ikasketen historia akademikoak eta ziurtagiri akademiko ofizialak.
- Eskolatzeliburuak.

| EGIAZTATZEKO IKASKETAK | DOKUMENTAZIOA Hauetariko bat aurkeztu behar da: | OHARRAK |
|--------------------------------------|--|--|
| Oinarrizko Hezkuntza Orokorra | Eskolatzeliburua | |
| Lehen Hezkuntza | Eskolatzeliburua Ikasketa Historia Ziurtagiri Akademiko Ofiziala | Etapaburutua Kurtso osoa |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | Titulua Eskolatzeliburua Ikasketa Historia Ziurtagiri Akademiko Ofiziala | Etapaburutua Kurtso osoa |
| Batxilergoa | Titulua Kalifikazio-liburua Ikasketa Historia Ziurtagiri Akademiko Ofiziala | Etapaburutua Kurtso osoa |
| Lanbide Heziketa | Titulua Kalifikazio-liburua Ziurtagiri Akademiko Ofiziala | Estatu mailan titulua ofiziala eta balioduna dela berronesteko eskaera Lanbide Heziketako Zuzendaritzan egin behar da. |
| Arte, Musika eta Kirol Irakaskuntzak | Titulua Ziurtagiri Akademiko Ofiziala | |
| Hizkuntza Irakaskuntzak | Titulua Ziurtagiri Akademiko Ofiziala | |